

2023-2027 ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMA AMAITURIK:

Martxoaren 28an, Eskualdeko Landa Garapen programaren diseinuari azken ikutuak emateko Talde Eragilea bildu ginen.

Prozesu osoan zehar, eskualdeko eragile ezberdinek hartu dute parte; guztira 88 parte hartze izan ditugu.

Identifikatutako ardatz ezberdineri lotutako 17 lan ildo osatu ditugu.

Eskerrik asko prozesuan parte hartu duzuen guztioi!



LIZTOR BELTZA:



2025eko Liztor asiarraren habiak desaktibatze kanpaina apirilaren 2an ireki da.

Aurreko urteetako pozedura berdina jarraitu behar da. Bakoitzek bere herriko udalean eman behar du abixua.

2024ean guztira 252 habi desaktibatu ziren.

Informazio gehiago: www.urbkome.eus

GIPUZKOAKO AZOKEN SAREA

Gipuzkoako Azoken Sarea-k hiru tailer proposamen egin ditu, kide diren udalak nahi dutenetan izena emateko.

1. Azoketako ekoizleei zuzendutako salmentak hobetzeko tailerrak.
2. ELIKA fundazioaren eskutik bi dekreturen zehaztasunak teknikari edota ekoizleei zuzenduta,
3. Azokatik Mahaira sukaldaritzat tailerra. Sukaldari batek azokan bertako eta garaiko produktuekin errezeta bat egiten deun bitartean, nutrizionista batek gako ezberdinak emango ditu.

Gipuzkoako Azoken Sarea: www.azokensarea.eus

AZOKATIK
Mahaira

ERREKAUEK

Azkoitiko udalak, Herrixen, Dendarlean, Urkome eta Iraurgi Berritzenekin elkarlanean; Next Funtsen laguntzaz Errekauek proiektu estrategikoa jarri du martxan: Azokako ekoizleak eta herriko merkataritza bultzatzeko. Errekauek zerbitzu berritzaileak, herritarrei Whatsapp bidez azokako postuetan eta tokiko dendetan erosketak egitea ahalbidetzen die. Zerbitzuak bi entrega-modu ditu: etxez etxeko banaketa ibilgailu elektriko bidez eta kontsigna adimendunetan jasotzeko aukera, erosotasuna eta jasangarritasuna uztartuz. Informazio gehiago: www.errekauek.eus



MAKINARIA ZERBITZUA



2025 urtean Makinari Zerbitzuak aldaketak izango ditu. Maiatzak 9a baino lehen, zerbitzua eman eta zerbitzua jasotzeko nahi duten guztiek izena eman behar dute. Informazio gehiago eta izen emate inprimakiak: www.landaola.eus Inprimakiak makinaria@landaola.eus helbidera bidali behar dira.

LANDAOLA SARIAK

Aurten ere, gipuzkoako landa garapen proiektuei errekonozimendua egin asmoz, Landaola Federazioak VIII.Landaola Sariak antolatu ditu.

Hauek izan dira ekimen sarituak:

- Erakunde pribatuaren saria: ERRASTIKO ESKOLA.
- Erakunde publikoaren saria: LEGAZPIKO UDALA.
Arrobi: erabilera tradizionalak ondare naturalaren kontserbazioarekin uztartuz.
- Emakumeak landa eremuan saria: JOSEBE LIZEAGA.
- Urteetako ibilbideari saria: MANUEL ODRIA.

www.landaola.eus web gunean informazio gehiago.

Ekitaldiaren bideoa: Landaola Gipuzkoa Youtube kanalean.



URTEKO BATZAR OROKORRA



2025eko apirilaren 4ean, Azpeitiko Azokako eraikineko 1.solairuko areto nagusian Batzar Orokorra ospatu genuen. Bertan, 2024ko memoria eta likidazioak eta 2025eko egitasmoak eta funtzionamendu aurrekontua onartu ditugu. Informazio gehiago: www.urkome.eus



[Urkome Urola Kostako Lge](https://www.facebook.com/urkome)



[urkome](https://www.youtube.com/urkome)



urkome@urkome.eus



[@urolakosta](https://twitter.com/urolakosta)



[@urkome_lge](https://www.instagram.com/urkome_lge)



www.urkome.eus



943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa
20730, Azpeitia